7. Gago Pedrazuela Miriam

Erdian ezkerretik eskuinera:

8. Nuñez Gómez Erika
9. Aguirre Muñoz Aintzane
10. Rodríguez Alegría Aitor
11. Usabiaga Eguiguren Alaia
12. Beguiristain Zubeldia Iraide

Aurrean ezkerretik eskuinera:

13. Albisu Rodríguez Oihana
14. Bengoechea Michelena Izaro
15. Ayerza Ormaechea Ainitze
16. Lazkano Arruarte Irati
17. Leonet Tadeo Naroa
18. Ugarte Amonarriz Olaia
19. Bengoetxea Garisoain Nahia
20. Jauregui Sanzol Xabier



Tutorea: **Jose Luis Macarro**

Haur Hezkuntza - Goi mailako zikloa 2



Atzean ezkerretik eskubira:

1. Sadaba Ibarbia, Kizkitza
2. Cipitria Bernabe, Jokin
3. Villoslada Mugika, Nagore
4. Lacunza Huici, Ane
5. Cipitria Bernabe, Ander

Erdian ezkerretik eskubira:

6. Peña Cordeiro, Juncal
7. Fernández Alberdi, Ainara
8. Alcaín Zibelzu, Oihana
9. Ruiz Castellano, María
10. Corral Vazquez, Ayla

Aurrean ezkerretik eskubira:

11. Galparsoro Cid, Maddi
12. Senar Benito, Josune
13. Lecea Urkola, Asier
14. Sánchez Galiñes, Patricia
15. Lecea Aracama, Nahia
16. Alonso Manchola, Sara
17. Macarro Ruano, Jose Luis

Lehenengo ilaran:

18. Etxeberria Garmendia, Lierni
19. Fernández Prada, Julen
20. Sagastume Alberdi, Joseba
21. Galdeano Gonzalez, Asier
22. Acosta Santoyo, Leire

GOIEKI

2020ko urtarrilaren 24an, Goieki Goierriko Garapen Agentziako 2 langileren hitzaldia izan genuen. Hitzaldian, Goieki zer den eta zein zerbitzu eskaintzen dituen azaldu ziguten. Aldi berean, negozio bat martxan jartzeko kontuan hartu beharreko jarraibideak eman zizkiguten.

Enpresen munduari buruzko gure zalantzak argitu zituzten, eta gustora sentitu ginen hitzaldian zehar.

ASIER LECEA

HAUR HEZKUNTZA
irteerak

BAZTANgo haur-eskolara bisita

Urriak 30, asteazkena, Elizondora egin genuen txangoa bertako haur-eskola ikustera.

Haur-eskolara joan baino lehen, Elizondon bazkaldu genuen. Ondoren, denbora librean izan ostean, haur-eskolako arduradunarekin elkartu eta bertara joan ginen.

Lehenik, ilundu baino lehen, kanpo-espazioak ikusi genituen. Leku handia eta naturarekin duen kontaktua oso aberasgarria iruditu zitzaigun.

Kanpo-espazioak ikusi ondoren barrukoak ezagutu genituen. Hiru gelatan

banatuta, erdian plaza moduko eremu bat zuen. Altzariak eta materiala hurrei egokitakoak ziren.

Azkenik, aipatzekoa da proiektua, haur-eskola egiteko garaian, udal-txea, arkitektoak eta hezitzaileak elkarrekin, elkarlanean, diseinatu eta gauzatu izana.

Haur-eskola oso egokia iruditu zaigu, bai naturarekin duen lotura eta harremanagatik, bai hezitzaileek duten inplikazioagatik. Hori horrela, guztiok gonbidatzen zaituztegu Baztango haur-eskola bisitatzerara.



Ipuin kontalaria

Yolanda Arrieta ipuin kontalariaren eskutik, ipuin eta kontakizunen mundu magikoan murgiltzeko aukera paregabea izan zuten HH1ko eta HH2ko ikasleek.

Mila esker, Yolanda, hitzei bizia emateagatik!!!



Erlaxazio saioak

Aloña Agirrezabalaren eskutik emozioen munduan murgildu gara. Geure buruari honako galderak eginez: Nola nago? Nola sentitzen naiz? Nola atera barruan daramaguna?

Geure gorputza entzun eta askatasunez adieraziz.





PBL

DBH 1eko ikasleak lan talde kooperatiboetan.

2018-2019 ikasturtean hasi ginen erronketan edo arazo egoeretan oinarritutako metodologiarekin lanean. Hasiera batean, guretzat ere erronka izan zen modu horretan lan egiten hastea; izan ere, ikasirakas modu tradizionalan oinarritutako metodologia batetik ikaslea prozesuaren zentroan jartzen zuen beste metodologia batera pasatu behar genuen. Lehengo urtean egindako lana oso baliagarria izan zitzaigun, eginiko akatsetatik ikasi eta ongi zegoena indartu dugulako. Ikasleen erantzuna oso positiboa izan zen, eta beraiek eginiko lanak ikusgai egon ziren Barrena jauregian kurtso bukaeran egin zen erakusketa batean. Aurten, ildo beretik jarraituz, proiektu eta erronka berriak planteatu dizkiegu ikasleei. Erronka horiek **Garapen Jasangarrirako 2030 Agendatik** atera ditugu hein handi batean.



ra, garraioa, hondakinak eta horien kudeaketa bezalako gaiak jorratu dituzte modu kooperatiboan.

DBHko 2. mailan: *Zero Gose* lelopean, gosea eta elikadura direla eta, bizimodu osasuntsu bat eramateko kontuan izan behar diren alderdiak landu dira.

DBHko 3. mailan: 4. mailan ikasbidaiara joan behar dutenez, iruditu zitzaigun alde zaurretik gauzak garbitzea eta hasieratik beraiek prestatzea ideia ona izan zitekeela. Bost hiriren artean aukeratu eta ikasleek ikas-bidaia prestatu beharko dute: aurrekontuak, hirian zer ikusi, joan behar duten herrialde edo hiriburuari buruzko informazio orokorra ... Hori guztia liburuxka batean jaso eta aurkezpena egingo dute.

DBHko 4. mailan: *Komunikazioa* izenpean, **Oiangurengo ahotsak** izeneko bloga sortu da. Bertan, ikasleek hiru hizkuntzetan ahozko tasuna eta beraien sormena lantzeko parada ezin hobea izango dute. Horretarako, grabaketa soinu eta irudi estudio txiki bat montatu dugu, beharrezkoa den teknologiaz hornituta.

Batxilegoko 1. mailan: EHUK antolatutako Kristalizazio lehiaketan parte hartu behar dute. Ikasleek lehiaketako oinarriak irakurri dituzte, eta eurek diseinatu dute defendatuko duten proiektua. Horretarako, hainbat ikerketa egin behar izan dituzte kristalak hazteko faktorerik egokienak zein diren ikertzeko asmoz. Bukaeran, muntaia egin eta epai-mahai baten aurrean lana aurkeztu eta defendatu beharko dute.



DBHko ikasleak ogigartekoak eramateko zorroak josten

Horrela:

DBHko 1. mailan: iazko *Hiri jasangarria* proiektuarekin jarraituta, aldaketa klimatikoaren inguruan lan egin dute ikasleek. Hainbat ikasgaitan, kutsadu-



Batxilegoko ikasleak proiektua lantzen.



Hizkuntza Trataera Integratua

Oianguren BHIIn hizkuntza modu integratuan lantzen jarraitzen dugu. Hemen dugu DBH 1ean egindako lana. Oraingoan, narraziozintza eta ipuin klasikoak hartu ditugu ardatz.


Lengua castellana

Se ha realizado una lectura crítica de los cuentos tradicionales y se han propuesto finales alternativos más contemporáneos, haciendo especial hincapié en el rol femenino. Para ello se ha utilizado el famoso Test de Bechdel.



Euskara





Euskaran, hemen ikus daitezkeen 5 ipuin tradizionalak landu dituzte.



English

Fairy Tales

They have read some traditional fairy tales with the final aim of creating a digital comic.



They came up with some extraordinary works which afterwards were presented in front of the classmates.



IRAKURKETA PLANA

Oianguren BHI buru-belarri dabil lanean ikasle oro **irakurle konpetente** bihurtzeko eta **irakurme-naz goza** dezan.

Gure ikastetxean guztiok gara hizkuntza irakasle, eta denok proposatzen ditugu gure gaiarekin lotura zuzena dituzten artikulak, testuak, elkarrizketak, entsaioak eta nobelak. Beraz, mintegien inplikazioa ezinbestekoa da gure ikasleengan irakurtzeko grina pizteko.

Eta lortzen ari gara, bai horixe!

Gonbidapena guztiontzat da: klik batekin Irakurle Finaren Txokoa murgildu zaitez eta gure ikasleek gomendioak irakurri....Zuk ere gustuko duzun zerbait aurki dezakezu bertan, eta zergatik ez, zure gomendioak ere gurekin partekatu. Txoko hau eskola komunitate osoari zabaldurik dago.

Beraz, badakizu: **irakurri, gozatu eta animatu parte hartzera!**



Gure ikasleek, diziplinarreko proiektu bitartez, ekoitzen dituzten lanen erakustokia da OIANGURENGO AHOTSAK. Maila, gai eta landutako hizkuntzak erabiliz hainbat podcast (soinu grabazio) eta bideo bidez, ikasitakoa azaltzen di-

gute eta,aldi berean, guk beraien lanekin ikasteko aukera izaten dugu. Izan ere, hainbat esparru beraien ikuspuntutik jasotzen ditugu. Gure ikasleak plaza gizon eta emakume bihurtzea da helburua.

Entzun, ikusi eta gozatu!

HEZKUNTZAK JARRAITZEN DU

Koronabirusaren pandemiak etengunea eragin du guztion bizitzan. Itxialdialdia edo barrualdia, telelana, normaltasun berria... eguneroko hitz bihurtu zaizkigu. Hain zuzen ere, normaltasun berrira egokitu da Hezkuntza publikoa ere. Eskola publikoaren partaide gara eta sinisten dugu egiten dugun lan honetan. Instituta itxi behar zela esan zigutenean, larritasuna sentitu genuen: nola egingo diogu aurre egoera berriari? Nola antolatuko gara? Zer egin ikasleek ikas-erritmoa ez galtzeko? Zer egingo dugu ikaslea ebaluatzeko? Bideo-deia. Zer da hori?

Galdera ugari, kezka eta egoera ezezagunak eragindako urduritasuna izan dira nagusi, eguna joan eta eguna etorri hasierako egunetan, eskola komunitatearen kideongan; Zuzendaritza-taldekoen, irakasleon, ikasleen eta familien sentimendua izan da. Aurre egin beharrak, ondo egiteko nahiak eta gertutik urrutira ikusteko "betaurrekoek", ordea, senaren eskutik argi egin eta urratsak zehazten lagundu egin digute.

Laster uxatu genituen hasierako beldurrak: **ikasleek lanari primeran erantzun** eta "mamuak" desagerrarazi zituzten; izan ere, eskola-ordutegia jarraitu dute, esandako lanak entregatu dituzte eta eskola-saioetan ere gogoz parte hartu dute.

Ez genuke geure burua jainkotu nahi! Akatsak ere egin ditugu; egin-desegin, hartu diogu neurria egitekoari: lan gehiegi bidali dugula, ordenagailu aurrean ordu asko igarotzen zitzutela... Doitu, egoerara egokitu eta erantzuna ematen saiatu gara hainbat eta hainbat arazori: konexio falta, ordenagailu eramangarri falta...



Jakin badakigu, aurrez aurreko hezkuntza ordezkatu-ko duen ezer ez dagoela: ahozkoa nahiz ahozkoa ez den komunikazioak elkarri begira gaudenean ematen duen informazioa da ikaslea galduta dagoenala ez jakiten laguntzen duena, zuzenean begietara begiratu hitz egiteko aukera, gertuko elkarrizketak, begiradak eta irribarra... Ez dago hori ordezkatu-ko duen bideo-deirik.

Hala ere, **ahalik eta modurik duinenean aritu gara guztiok lanean**, eta egindako lana, ezagupenak, bizi-penak eta izandako irakaspenak -akademikoak nahiz giza mailakoak- gurekin izango ditugu. Eredugarria izan da gure ikasleen jarrera; primerako erantzuna izan duzue! Irakasleok ere, ez dugu gutxi ikasi zuengandik. Hortaz, ZORIONAK!

Ez dugu artikulu hau bukatu nahi ikasle talde baten ana azaleratu gabe: aipamen berezia eta txalo zaparrada DBH 4. mailako Listen to my radio Breaking News! eTwinning proiektuan parte hartu dutenei. Berrez konplikatua zen egoera baten aurrean, ez dira koldu eta Italia, Finlanda, Turkia eta Alemaniako ikasleekin batera 2015ean Nazio Batuen Erakundea ren Batzar Nagusiak onartu zuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda podcast bihurtu dute. Gure kazetarien lana entzuteko gogoia baduzue, web guneko **Oiangu-rengo Ahotsak bisitatu**.



Ikasle eta irakasleak telelana burutzen.



Energia eta klima aldaketa II

Badira hainbat urte gure ikastetxea Eskola Agenda 21 proiektuan murgildu zela eta ordutik hainbat gai aztertu eta landu dira. Ikasturte honetan iazko gaia garatzen jarraitzen dugu, bere gaurkotasun eta garrantziagatik:

Lehen pausoak Ingurumen Batzordea eratzea eta sentsibilizazio fasea martxan jartzea izan ziren.



DBH 1: CLIMATE (Infographic)

Herri eta ikasletxeko diagnostikoan ere aritu gara. Ondorioak ateraz, hausnarketa eraginez eta ondoren ekintzetara joaz. Curriculumaren berrikuntza ahaztu gabe, Ingurumen hezkuntzako gaietan sakontzea da gure ikastetxeko helburuetako bat eta horretan buru-belarri aritu gara proiektuetan oinarritutako ikaskuntzan.



DBH 2: Zero Gose (Telazko merienda poltsak)



DBH 3: 2030 AGENDA (Sustainable cities)

LEHEN



Bestetik, Kudeaketan zaborrak ongi bereiztea eta ikasleen partaidetza handitzea izan da gure lehentasuna horretarako patioko hondakin ontziak berrantolatuz.



DBH 4: HONDAKINAK ETA KITTO!

ORAIN



Azkenik, irakasle/ ikasleen partehartzea ere ezin hobea izan da. Bereziki aipatu, antzerki taldekoek egin duten lan bikaina Ekaineko Ingurumenaren Egunerako Manifestuaren lanketan.

Hau da bidea; Denok batera Ingurumenaren alde!!! Ala lurra eskertuko digu.



Eskola kirola 2019-220

2019-2020 ikasturtean, Eskola Kirolari dagokionean, azken urteotan izan dugun ibilbideari jarraipena eman diogu. Hau da, gure jomuga nagusia atletismoko jarduerak izan dira.

Gipuzkoako Eskolarteko Kross txapelketa izan zen Lehenengo topaketa nagusia. Otsailean jokatu zen Hernanin. Bertan, urtero, Gipuzkoako hainbat ikastetxe lehiatzen dira taldeka; besteak beste, Euskadiko Kross Txapelketarako txartela lortzeko xedeaz. Izan ere, nesken zein mutilen kategorietan 1go hirurek lortzen dute sailkatzea.

Gureen artean, neskek 3. sailkatu eta, beraz, Murgiana (Araba) joateko txartela lortu zuten. Mutilak, aldiz, hasiera batean 3. sailkatu baziren ere, erreklamazioak tarteko, azkenean 4. gelditu ziren.

Hala ere, emaitzak emaitza, azpimarratuko nuke,

batetik, gure neskek eta mutilek lehiatzeko erakutsi zuten grina; eta bestetik, Gipuzkoako ikastetxe guztien artean, geureak eraman zuen, beste behin ere, infantil mailako neska eta mutil kopuru handiena. Berriro ere "marka" hori jarri izanak, inolako harrokeriarik gabe, harro sentiarazten digu.

Murgian (Araba) lehiatu zen Euskadiko Eskolarteko Kross txapelketan gure neskek lan izugarria burutu zuten. Orokorrean maila ikusgarria izan zen, eta gure neskek ere maila horixe erakutsi zuten: ikusgarria. Lan bikaina egin zuten, bai. Baina, emaitzak emaitzak, bertan egotea zen sari mundiala, eta horixe ere lortu zuten.

Gogora dezagun Covid-19ak eraso egin zigunean, pistako denboraldirako taldeak osatzen ari girela... eta guztiok dakigu zer gertatu zen gero.

GIPUZKOAKO KROSS TXAPELKETAKO NESKA-MUTIL TALDEA



GIPUZKOAKO KROSS TXAPELKETAKO NESKAK PODIUMEAN



GIPUZKOAKO KROSS TXAPELKETA IKER, JOKIN, MARKEL ETA YOUNES LANEAN



GIPUZKOAKO KROSS TXAPELKETA NORA ETA UXUE LANEAN



EUSKADIKO KROSS TXAPELKETAKO NESKA TALDEA



EUSKADIKO KROSS TXAPELKETA NORA ETA IRANTZU LANEAN









EUSKADIKO KROSS TXAPELKETA MAREN ETA GREATINE



EUSKADIKO KROSS TXAPELKETA MEREZITAKO HAMAIKETAKOA





MADRID EN LA ERA DEL CORONAVIRUS

En estos tiempos extraños en los que un virus nos ha reducido a la intimidad de nuestros hogares, recordamos con nostalgia los carnavales vividos en Madrid ya que fue esta la última actividad organizada previa al cierre de los centros escolares. Este viaje es ya un clásico cuyo objetivo es ofrecer a nuestros jóvenes de 2º de Bachillerato una panorámica en torno al teatro, desde los viejos corrales de comedias de los Siglos de Oro hasta el teatro actual, más alternativo.

Pero este viaje trasciende lo escolar y adquiere un claro componente sentimental, emotivo. Por eso lo recordaremos siempre. Grabadas en nuestra memoria quedaron las charlas y las risas compartidas con estos **alumnos y alumnas** que ahora finalizan su trayectoria en el instituto, y a los que queremos dedicar un **sinfín de merecidos aplausos** y abrazos, por ahora virtuales, y besos capaces de recorrer ese metro y medio que, al separarnos, nos protege.

DEPARTAMENTO DE LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA



ARTE sorkuntzatik...BERZIKLAPENERA

MUSIKATIK... berziklapenera

Materiala berrerabili eta birziklatuta, 1 DBHko ikasleek hainbat familiatako musika tresnak sortu dituzte.

Horretarako ezinbestekoa izan da Trakamatra elkarteak eman zigun hitzaldi/ tailerra. Hantxe ikasi genuen erabiltzen ez ditugun hainbat objektuekin -etxean kasurako- musika egin daitekeela. Alegia, musika egin, inguruarekin gure konpromezua agertu eta sormenaren bidez gozatu ahal izateko, ez dela behar-behezkoa ohiko musika tresna bat.



PLASTIKATIK... berziklapenera

Haria hariari tiraka, sormenari ekin diogu DBH2ko Plastika eta Ikus Hezkuntza ikasgaian.


Ikastetxeko Proektuari tiraka, Ikasleok geure ogitar-tekoak batetik bestera eramateko boltsak JOSI ditugu. Erabilera bakarreko zaborrak ekidin (albal, pape-
ra, plastikoa, etb...) eta etxeko zapi eta oihal zaharrei bigarren erabilera eman eta boltsak sortu ditugu.

Polita izanda hainbat ikasle bata bestearen ondoan josten eta elkar laguntzen ikustea. Gozamina izanda, Arte eta Sorkuntzatik, berziklapenari gure ekarpena egitea.





Aurten ere euskaraz eta euskararen alde lanean



Beste urtebetez ere, **Oiangurenek euskararen alde lanean darrai.** ikasle zein irakasle, inork ez du lorik hartzen, ezta albokoaren esku ezer uzten ere. Horregatik, ikasturte hasieran, irakasleak ikasle bihurtu eta, normalkuntzaren aldean, euskararen inguruko prestakuntza jaso zuten.

Kulturaren eta hizkuntzaren gertuko senide den **literaturari ere egin zaio ekarpena.** Bertan, ikasleei euren lumak dantzan jartzeko agitz tinta zein askatasun eman zitzaizen eta euren gorputz barrutiko "ni" sekretua pixka bat gehiago ezagutu ahal izan genuen ipuin labur, bertso, poesia, komiki zein istorio sinestezinenak idatzi baitzituzten herri eta bailara mailako proiektuetarako.

Euskara gogoratzeko egunean, **abenduaren 3an**, gure eskolako harresiak atzean laga eta gure iparra **herri erdira** zuzendu genuen. Goiz hartan kalean zebiltzan herritarrek plaza zein zineman ikusi gintuzten egun handi horren harira, beste behin ere, euskararen garrantzia gogoratzeko egin genuen ekitaldietan..



Hiriak

Gerra bat piztuko zenaren beldur harresiak ziren nagusi, hiri hartan.

Ez ziren harro egotekoak, sendoak ziren arren, beldurrez eta ikaraz eraikirikoak baitziren.

Hiriaren aurka gerra piztu zen. Bat-batean, oharkabean, bonba bat lehertzen den bezain bizkor.

Segundo batzuk pasa eta sendoak ziruditen harresi haiek burumakur jarri eta irauli egin ziren.

Egun batetik bestera, hiri hura ez zen berdina, itxurak egiten saiatzen zen arren. Harresia zatika zihuan behera.

Hotsen beldur zen eta armez are gehiago. Bazirudien, bera zela arma horien suntsitzeko ahalmenaz ohartzen zen bakararra.

Inguruko lagunak etsai bihurturik ikusten zituen. Eta lehen itsaso zenak, orain basamortua zirudien.

Baina basamortuan ere, itotzen jarraitu zuen. Hondarretan ere azpiratu egiten baitzen.

Bakarrik egon ez arren bakarrik aurre egin beharreko gudu bat bihurtu zen.

Laguntza eskatu nahi baina ezin. Urrundu nahi izan baina ezin.

Eta azkenean, barreak eta hitzak izan ziren, hiri hura suntsitu eta ito zutenak.

Horiek baitziren gizakiak ezagutu dituen armarik boteretsu eta inuzenteenak



Beasaingo Idazlan Lehiaketa

OIANGUREN BHI, HARRO GURE IKASLEEKIN

Urtero bezala, udaberriarekin batera iritsi dira Beasaingo Idazlan Lehiaketako emaitzak, eta horiekin batera, berri ona Oiangurenera. Izan ere, sari esanguratsuak jaso dituzte gure ikasleek.

Maila bikaina erakutsi dute. Batzuek saria irabazi eta horixe da maila horren isla onena. Zorionak! Beste batzuek, oraingoan bere lanaren ordainik jaso ez badute ere, maila ederra erakutsi dute. Eta berez, hauek ere, gure aipamena, gure errekonozimendua, merezi dute. Bihoakiela hauei ere, beraz.

Sariak prosa eta olerki ataletan lortu dituzte. 2002 eta 2003 urteetan jaiotakoan artean, olerkietan, 1. saria Unai Razkin Zufiaurrek jaso du, "Eusterik banu" lanari

esker. Amaia Zeberio Aiestaranek "aipamen-saria" jaso zuen "Lerro paraleloa" lanarekin.

Prosan, 2. eta 3. sariak jaso dituzte; 2.a, Ane Aranburu Santasek, "Gerrak" izeneko lanari esker; eta 3.a, Irati Aiestaran Intxaustik, "Ez geala, ba geala" lanari esker.

2004 eta 2005 urteetan jaiotakoan artean, prosa atalean, Enara Nazabal Gomez de Segurak 1. saria lortu zuen "Ahaztuta geunden" lanarekin.

Ohiturari jarraikiz, sarituak izan diren lan horiek guztiak liburu mardul batean argitaratu eta eskuragarri jartzten dira.

ZORIONAK!!!

Ordizian, 2020ko apirilaren 20an

Kaixo, amona!

Asteazkena da, baina igande zaporeko asteazkena. Igande zaporea badu ere, ez da jai eguna. Igande zaporea duela diot, goiz guztia eskolan lagun artean tope lanean egon banaiz ere, zurekin bazkaltzeko eta berriketan egoteko aukera baitut. Zuk samurtzen dituzu nire egunak. Zu zara asteko egunak igande bilakatzen dituen.

Zerua urdin-urdin dago: laino bakar bat ere ez da agerian. Zuhaitzetan lehen loreak ikus ditzakegu. Negua atzean utzi berritan udaberria dugu alean. Metro gutxitara dagoen parkean umeak jolasean entzun ditzakegu.

Parez pare gaude, zu eta ni, ni eta zu.

Munduko mimo guztiz prestatu duzun babarrun platerkada bana dugu aurrean. Tolosako babarrunak. Odolki punta bana dugu. Gaur mondejurik ez duzu jarri, jakin baitakizu nik ez dudala gustuko. Babarrunak inoiz baino hobeak daude, eta ez da normalean txarrak egiten dituzulako ez, benetan diot, bereziki onak daude. Baserriko ogiak eta sagardo tragoxka pare batek laguntzen digute babarrunekin. Sagardoa bere onenean da. Zuk indartu egiten zaituela diozu.

Hala da, indartsu zaude, inoiz baino hobeto ikusten zaitut. Pare bat trapu zahar daramatzazu soinean, baina ez du axola nik ongi ikusten zaitut. Sasoitsu zaude.

Nire goiza goitik behera kontaktu dizut eta zuk niri zurea. Nire arazoak txikitzeko ahalmena duzu. Egun beltzak argitzen dizkidazu. Zurekin egotea gustuko dut, zuri entzutea. Batzuetan esaten duzunarekin ados ez banago ere, zurekin eztabaidatzea gogoko dut. Eztabaida ez baita haserrearen sinonimo, ikaskuntzarena baizik. Nik zuregandik ikasten dut eta diozunez nik ere zer edo zer erakusten dizut.

Aldiriko trenak esnatu nau. Inoiz izan dudana amets goxoena izan dut, baina esnatu eta Covid-19a medio, denak hankaz gora jarraitzen duela ikusteak tristatu egin nau, baina batez ere oraindik ezin ikus zaitzakedala konturatzeak; beraz, nire ametsa paperreratzea erabaki dut. Hitz hauek ez dira zuk irakurtzen dituzun liburuen mailaren erdira ere iristen, baina faltan sumatzen zaitudanaren adierazle dira.

Orain parez pare gaude, baina ate batek banatzen gaitu.

Oraingoan sagardoa ez da nahiko zu indartzeko eta zure segurtasuna bermatzeko. Baina bihotzez diot, azken hilabeteetan ez dudala zurekin berriz ere egotean baino amesten.

Maite zaitut, amona.

Zure biloba, Irati Esnaola

Hezkidetza Batzordea



KUTXA
IBILTARIA
PARTE

Indarkeriak ez, ez hocala ez, harrim!
Neska edo mutil, denok berdin
Bihotza eta buru, parekidetasuna helburu
Askeak gara, ez ausartak
Indarkeriak jai, denok alai



HEZKIDETZA BA



HEZKIDETZA
Bihotza eta buru, parekidetasuna helburu

900 840 111



ERABAKITZEN
DUTENA
dudana
IZANGO NAIZ



MARTXOAK 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna



BAI EZ BADA



IZORDEA



oihulari Klown

PRO NOIA

Virginia Imaz-ekin

Martxoak 4 asteazkena 18.30etan

Ordiziako BARRENA kultur ebean (Aretoa)



BELDUR BARIK LEHIAKETA



Zer in do Oiangurengo bidearik onena?

Zok aukeratut

- Boto ikasgela formatza:
- Ikerri bideak
- Basketball

Oianguren

MARTXOAK 8
ANTOLATU INDARRAK
BATU BORROKA FEMINISTA
BAZKARIA
ORDIZIARIKO
PLAZAN 14:30 ETAN

TIKEAK
POTTOKA, D'ELIKATUZ
KIRKIL ETA JUBILATUEN TABERNAN
SALGAI
PAELLA, POSTREA ETA KAFEA.
LANGABETUAK ETA
IKASLEAK EURO
LANGILEAK SEURO

ORDIZIARIKO KOORDINADORA FEMINISTA

TRANS-FORMATZEN

ezagutu, lagundu ahal izateko

ICARTZAN BEASAIN

Martxoaren 28an larunbata 10etan

BEASAINgo ikastetxe guztietako GURASOEI ZUZENDUA

izan-errotak labur.us/en/PPY



XVI. Berdintasunerako Gunea
Foro para la Igualdad 2019

ERABAKITZEN

DUTELA MUNDUA
Judana
IZANGO NAIZ

Herak argi dauka. Eta besteok?



SERÉ QUIEN

DECIDEN

yo decida

Etia lo tiene claro, y el resto...



eTwinning Projects

Listen to my radio: Breaking news! is the name of the project we are working on this school year. The main aim of the project is to learn to create podcasts and get to know the project partners, as it is intended that students work in international teams. In order to fulfill their tasks they need to use ICT tools and English to communicate. The students will improve their foreign language skills, their intercultural competence, their cri-



tical skills, their ability to work in team and also their digital competence. So far, they have completed two podcasts. The first one dealt with a controversial topic: Teenagers do not read any more: is it true? and the second one has faced them with reality. In groups, they learnt about sustainable development goals. Will they take action and make a difference?

Time will tell!

Your guide to good netiquette

- Don't post nasty or rude messages on other people's social media.
- Are you sure what you're sharing is true? It could be fake news!
- Think of other people's feelings before uploading anything about them.
- If it all gets a bit too much, take a break from being online. It's okay to log out.
- Humour doesn't always translate well online. What you think is funny might actually be offensive.

Thank you Spanish friends
PIC-COLLEGE

LET'S WRITE POSTCARDS FOR CHRISTMAS!

ONLINE MEETING BETWEEN LICEO MAMIANI (ITALY) AND IES OIANGUREN (SPAIN) - 14TH OCTOBER 2019

LISTEN TO MY RADIO: BREAKING NEWS! AN ETWINNING PROJECT

SEPTEMBER 2019 - JUNE 2020

PROJECT PARTNERS: BEIN (FRANCE), ITALY (GERMANY), BELGIUM (GERMANY), SWEDEN (FINLAND), FRANCE (FRANCE)

- 1. PROJECT PARTNERS**
Forming the working group
- 2. CONTACTING THE PARTNERS**
Establishing contact with the partners
- 3. PROJECT PARTNERS**
Establishing contact with the partners
- 4. PROJECT PARTNERS**
Establishing contact with the partners
- 5. PROJECT PARTNERS**
Establishing contact with the partners



FRANÇAIS BATXI 2 2019-20

LA PRÉSENTATION: nous sommes les élèves de Batxi 2 du lycée Oianguren et nous allons parler sur ce que nous avons fait pendant cette année scolaire.

PROJETS ET ACTIVITÉS: nous avons fait plusieurs activités et nous nous sommes bien amusés. De plus, nous voudrions mentionner que nous avons beaucoup appris et que nous recommandons le cours de français aux étudiants. Ce que nous avons le plus aimé ça a été de regarder des films et des séries pendant la période officielle des examens. Le français étant une matière optative nous faisons l'examen en avance et cela nous a permis d'être plus détendus après. Malgré les problèmes que nous avons eus en enregistrant nos voix pour un podcast (émission à la radio pour gérer le stress) nous sommes, sans doute, assez fiers de ce que nous avons fait. Vous pouvez l'écouter sur le site internet du lycée.

OPINION SUR LA MATIÈRE: nous croyons que c'est une matière très agréable et surtout utile pour apprendre et s'amuser en même temps. En tout cas, notre expérience a été formidable et merveilleuse!



Skype in the classroom

This year we were also very active on Skype. As you can see in the pictures, we received calls from Serbia, Ukraine and Vietnam. They were really useful to use English to communicate in real situations and to learn about 3 different and fascinating cultures.

We also helped to spread Basque culture over the world.

DBHB 4 STUDENTS



IKT PROIEKTUAK APP INVENTOR

Programazioaren hastapenetatik abiatuz ikasleek beraien mugikorretarako aplikazioak sortu dituzte.

Guztia asmatuta dagoela badirudi ere, bada oraindik lan originalak egiteko aukera ere eta hori erakutsi digute ikasleek aurtengoan ere.

Etxean hainbeste ordu pasa ditugun egun hauetan ez aspertzeko jokoak sortu dituzte batzuk, eta beste batzuk, begirada etorkizunean jarri eta bidaiatzen hasten garenerako turismo gidak egitea erabaki dute.

Probatu nahi al duzu hauetako aplikazioen bat? QR?



ONZIENTZIA LEHIAKETA

Elhuyarrek eta Donostia International Physics Centerrek, **ON ZIENTZIA** bideo-lehiaketaren 10. edizioa antolatu dute, zientzia eta teknologia dibulgatzeko.

Lehiaketaren helburua da bultzatzea zientzia eta teknologiaren balio positiboak eta garapeneoak sustatzen dituzten bideo labur eta originalen ekoizpena eta difusioa, publiko mota guztientzako baliagarri izan daitezen.

Bigarren aldiz jarraian, **Unai Razkin** eta **Ane Aranburu** Oiangurengo ikasleek, Euskarazko zientzia bideo hoberena saria eskuratu dute.

Bideo ederra egin dute, bai irudiz eta soinuaz, baino ederrera da bideo ikusi ta gero zientziaren inguruan apur bat gehiago dakigunaren sentsazioa da.

Lan bikaina!



BABES MASKARAK DENON ESKURA

Babes elementu hauen fabrikazioa abian jartzeko proposamena **Industria Teknologia II**ko ikasle baten eskutik etorri zitzaigun. Sare sozialetan mugimendu bat hasia zen, bereziki osasungintzan ari ziren profesionalak babesteko balioko lukeen maskara bat eraikitzeke helburua zutenekin. Gerora irakasleon proposamenak heltzen hasi ziren egoera horren aurrean ikastetxeak zeozer egitea zuela pentsatuta.

Esperientzia honetan murgiltzea erabaki genuen eta ahal zen heinean gure jarduna ikasleekin partekatuko genuen, guzti honetatik asko zegoelako ikasteko. Lehen mailako Industria Teknologia irakasgaietan lantzen ditugun eduki mota guztiak zeuden presente ariketa erreal honekin (gizartearen demanda bat behar baten harira, diseinua 3Dn, materialak, adizio bidezko fabrikazio prozedura, energia, produktuen ekoizpena eta banaketa...).

Esperientzia ahaztu ezina eta bizitzea tokatu zaigun garai berezi honen antzera, gauza asko erakutsi dizkiguna. Mila esker, egoera honetan, era batera edo bestera, ekimen altruista honetan parte-hartu duzuen guztioi!

Oianguren teilatuko konponketen ondoren



MEME LEHIAKETA (<https://photos.app.goo.gl/uEERJ8vG2aRsrePJ3>)

Aurtengo **Euskarazko meme** lehiaketa inoizko arrakastatsuenaren izan da bai parte hartzaile kopuruagatik baita erakutsitako kalitateagatik ere.

Baina ... Zer da **meme** bat?

Wikipediak dioten bezala, Interneteko kulturaren, **memea** umorezko mezu sinplea da, zabalkuntza handi eta azkarrekoa. Eta gehienetan jato-

rizko irudi, bideo edo testu baten remix satirikoa behin eta berriz eginaz transmititzen da..

Gora euskarazko umorea!

Hemen ikusi aurkeztutako lan batzuk



STEAM BERRIZTATZE PROIEKTUA ESKOLA

Gaur egungo irakaskuntzan oinarritzekoak diren zenbait konpetentzia landu eta eskuratzen lagunduko digun Berriztatze Proiektu berri bat lantzen dihardugu.

lazko ikasturtean, 1.DBHn, diziplinarteko eran aurrera eramaniko proiektuetako bat **Hiri Jasangarri**arena izan zen.

Hiri Jasangarri horiek, "gabezi" nagusi bat zuten modu jasangarrian bizitzeko ereduaren ingurunearekiko errespetuz diseinaturiko espazio horiek pertsonen eta ondasunen garraiorako mugikortasunaren gaian ez zuten sakontzen.

Hiri horietan garraioak nolakoa beharko lukeen landu nahi da, automatizazio maila zehatz bat izango duten ibilgailuak eraikiaz.

Proiektua ikasle taldeek Hiri Jasangarrian aproposa litzatekeen ibilgailu bat eraikitzean datza, garraio publikoa ahaztu gabe, honi dagokion egitura emanez.

Egitura hori mugikorra izateko beharrezkoa diren mekanismoak garatu beharko dituzten ikasle taldeak eta ibilgailu horiek izango dituzten

mugimenduak robotikoki kontrolatu nahi dira plaka kontrolatzaileak medio.

Ibilgailuak mugitzeko eta plaka elikatze behar duten energia elektrikoa eguzkitiko energiarekin etorriko da eta panelen bidez hau jaso eta bihurtu ondoren, elektrizitatea, bateri kargagarri batean metatuko da, ibilgailuak beharrezkoa duen autonomia bermatu asmoz.

Ibilgailuak era berean, zenbait sensore izango ditu, nola hala, bere ibilbidean oztopoak ekiditen lagunduko diotenak, arrasto bat jarraitzea ahalbidetuko lukeenak ibilgailua modu ia autonomoan gidatzea ahalbidetuko litzatekeelarik...

Proiektuan murgilduta jarraitzen dugun irakasleok, kurtsuan zehar, ezinbesteko formakuntza luzea eta sakona jaso dugu Berrizteguneko Nagusiko "Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako konpetentzia" rako aholkariengandik.

Lanean jarraitzen dugu, etorkizuneko ibilgailuak izango den horren prototipo hoberean doitzen eta nola ez, ikasleekin batera, **egoera berezi honetan ere ikasten etengabe!**

SAEBIDEA

- ➔ Batxilergo titulua
- ➔ UBI-COU
- ➔ Unibertsitateko ikasketak
- ➔ Goi mailako teknikari titulua
- ➔ Sarbide-troga

Eskaintza Osoa eta presentziala.

D ereduan eskaintzen da.

B2 ziurtagiria eskuratzeko aukera ematen zaie.

Eskola ordutegia 8:30tatik 14:30tara, Irailetik Ekeinera.

Haur Hezkuntza

GOI MAILAKO ZIKLOA

KONPETENTZIA OROKORRA

Haur Hezkuntzako lehen zikluari 0-3an (**esparru formalean**) eta etapa osorari 0-6an (**esparru ez-formalean**), haurrentzako arretarako heziketa **proiektuak eta -programak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko**.



MODULUAK

1. maila

0012. Haurraren autonomia pertsonala eta nazionala 198h

0014. Adierazpena eta komunikazioa 198 h

0015. Garapen kognitiboa eta motorra 198 h

0016. Garapen emozionala 165 h

0017. Gizarte-erretseunak 132 h

0021. Laneko prestakuntza eta orientabidea 89 h

2. maila

0011. Haur-hezkuntzaren didaktika 200 h

0013. Haur-jolea eta bere metodologia 140 h

0018. Familiaren lanikidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeen arreta eskaintza 100 h

0019. Haurri arreta eskaintzaren proiektua 50 h

0020. Lehen laguntzak 60 h

E200. Ingeles teknika 40 h

0022. Enpresa eta ekimen sortzailea 60 h

0023. Lanleku prestakuntza -PRAKTIKAK 360 h

Praktikak hi **epetan banatzen dira**, lehenengo epa iraila-urrria eta bigarrena, martxutik ekainera. Ikasleek bi enpresa deaberridutari praktikak egiteko aukera dute. Hala nahi duten ikasleek bigarren epako praktikak atzerrian egin ditzakete **ERASMUS** programaren baitan.

IRTEERAK

➔ **Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur-hezitzailea**. Basiere, maisu edo maistra batek gainbegiratuta jardungo du, Estatuko, autonomia-erkidegoko nahiz tokiko erakundeen mendeako instituzioetako edota titulartasun pribatuko ikastetxeetako hezitzaile gisa.

➔ **Arrisku sozialean dauden adingabeekin (0-6 urte) edo familiei laguntzen** (basa profesional batzuen jerr-sibidaak beteko) lan egiteko bareriazko erakundeetako eta/edo programetako hezitzailea.

➔ **0 eta 6 urte bitarteko adingabeekin aisia eta denbora libreko programa edo jardueretako hezitzailea**: luduntzak, kultura-erak, liburutarjiak, ikastetxeak, aisiaguneak, landetan eskolak, etah.

➔ **ETA ORAIN MAGISTERITZA GRADUA EGIN NAHI DUTENEK IKASGAIAK KONBALIDATZEKO AUKERA.**





DECORACION
EN ESCAYOLA

CARLOS MUÑOZ GARCIA

Tel.: 943 08 65 18 - Móvil. 646 537 112
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)

M

**MIKEL
ELEKTRIZITATEA**

Esteban Lasa, 12 - 1A
Tfnoa.: 638 955 385
mikelectro@gmail.com
20200 BEASAIN



**ALBANILERIA
ALEJANDRO KUIZ
Y OTROS S.L.**

Tel.: 948 78 11 15 - Móvil: 670 415 382 - 31300 RADA (Nerua)



GOIERRI AUKERA
metal eta aluminio artzeria



Acero
Inoxidable
Herrería
Aluminio



Pol. Ind. MALLUTZ 10-11
ORDIZIA
☎ 943 881 563
F. 943 881 407

aukera@goiernaukera.com • www.goierriaukera.com



ITURGINTZA
FONTANERÍA

GOROSTIDI



C/ Foru, 58 Bajo - Tel.: 670 020 903 - BEASAIN (Gipuzkoa)



**Muebles
GALARRETA**

Nekolalde, 14
Tel. 943 88 04 96
Móvil: 665 734 781
20200 BEASAIN

Salvador Lau Alvarez

Tel. Móvil: 609453054



IMPERMEABILIZACION
DE:
Cubiertas, Terrazas, Fosas, etc...
AISLAMIENTOS CON POLIURETANO

C/Bikuña Enea 7, 4ºE - Tel. Fax: 943 73 43 81 - LEGAZPI



Ikasi
group

Tel.: 943 85 70 44 - 943 85 70 41. Faxe: 943 85 36 33
E-posta: ventas@ikasi.eus
www.ikasi.eus



creativos gh®

Servicios Integrales de Publicidad



www.regalospromocionales.eu

**DISEÑO GRAFICO E IMAGEN CORPORATIVA, PAGINAS WEB
Y MULTIMEDIA, TRABAJOS DE IMPRESION DIGITAL
ARTICULOS DE PUBLICIDAD Y SERIGRAFIA, BORDADOS Y
GRABACION LASER, ROTULACION Y SEÑALETICA**

Aitzkorri 24 Bajo - Tel.: 943 73 43 61 - 610 373 639 - creativosg@creativosg.com - LEGAZPI (Gipuzkoa)

urdaneta

• • • • •

oianguren

ordiziako ikastetxe publikoa

Gernikako arbola kalea 1

20240 ORDIZIA

tfn.: 943 89 93 89

e-maila: 012282aa@hezkuntza.net

www.oianguren.hezkuntza.net



ICT-n heidutasun-maila
ALTISSIMORATUA duen ikastetxe
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de madurez TIC

